

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

242

EBAZPENA, 2009ko azaroaren 24koa, Ingurumeneko sailburuordearena, ingurumeneko baimen bateratua emateko dena kobre esmaltatuzko haria fabrikatzeko, Legorretako udalerrian (Gipuzkoa) eta Ederfil SK enpresak sustatua.

AURREKARIAK:

2008ko maiatzaren 22an, Pablo Mendizábal Egibar jaunak, Ederfil SK enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2008 Legeak xedatutakoaren arabera, Legorretako (Gipuzkoa) udalerrian kobre esmaltatuzko haria fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Legorretako Udalak 2008ko apirilaren 17an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

- Proiektua, memoria teknikoa, eranskinak eta planoak.
- Ederfil SK enpresak isilpekotzat hartutako informazioa jasotzen duen agiria.
- «Laburpen ez-teknikoa».

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Ederfil SK enpresak, besteak beste, jarduerarako 1997ko apirilaren 3ko baimena zuen kobre esmaltatuzko haria fabrikatzeko. Era berean, enpresa sustatzaileak hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen ekoizle izateko baimena zuen, 2002ko abenduaren 9koa eta 2000ko martxoaren 1ekoa, hurrenez hurren.

2008ko ekainaren 9an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Zehazki, Legorretako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari eskatu zitzaizen txostena.

2008ko irailaren 23an Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2008ko urriaren 3an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2008ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Ederfil SK enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko abenduaren 10ean. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2009ko urtarrilaren 20an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Legorretako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Kantauriko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko ekainaren 11n, Kantauriko Ur Konfederazioak hondakin-uren isurketari buruzko txostena bidali zuen.

2009ko uztailaren 31n, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Ederfil SK enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2009ko irailaren 10ean sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta. Aurkeztutako alegazioen edukia kontuan izanda, 2009ko irailaren 23an beste txosten bat eskatu zitzaion Kantauriko Ur Konfederazioari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes-maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearen. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi izan dira. Ederfil SK enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen ekoizle izateko baimena; saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena, eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzorua kutsadura prebenitu eta horri aurre hartzeari dagozkionak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzeko du; ez du ordezkatzeko, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Ederfil SK enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Legorretako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Hain zuzen ere, kontuan hartu da Europako Batzordearen disolbatzaile-sektorerako «Reference Document on Best Available Techniques on Surface Treatment using Organic Solvents» BREF agiriaren edukia, 2007ko urtarrilekoa. Gainera, arloko araudiari dagokionez, kasu honetan apirilaren 30eko 728/1998 Errege Dekretua aplikatu behar da. Dekretu horren bidez, apirilaren 24ko 11/1997 Legea, ontziei eta ontzi-hondakinei buruzkoa, garatzeko eta betetzeko Araudia, eta urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua, zenbait jardueratan disolbatzaile organikoak erabiltzerakoan sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isuriak mugatzeari buruzkoa, onartzen dira.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Ederfil SK enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko uztailaren 31n emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzkoa, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Legorretako (Gipuzkoa) udalerriko Industrialdea kaleko z./g.an duen eta IFK: A-20048351 zenbakia duen Ederfil SK enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, kobre esmaltatzeko hariak fabrikatzeko, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzekin.

Halaber, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikulua araberako Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzen kalterik gabe.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 10.1 kategorian, «Disolbatzaile organikoak erabiliz material, objektu edo produktuen azalak tratatzeko instalazioak, bereziki distira emateko, estanpatzeko, estaltzeko eta koipegabetzeko, iragazgaizteko, itsasteko, lakatzeko, garbitzeko edo bustitzeko, orduko 150 kg-tik edo urteko 200 tonatik gora disolbatzaile kontsumitzeko gaitasunarekin».

Fabrika Legorretako udalerriko industrialde batean dago. Lur zatiak 11.800 m² okupatzen ditu, eta horietatik 6.000k hormigoizko zola dute eta beste 1.000 asfaltatuta daude.

Produktu-lerroa klase termikoaren arabera sailkatzen da. Urteko ekoizpena 20.880 tonakoa da.

Ederfil SK enpresaren ekoizpen-lerroak bi prozesu nagusi ditu: trefilaketa eta kobrezko hariak esmaltatzea. Trefilaketa kobrezko hariak hozten eta lubrifikatzen dituen ur- eta olio-emultsio batean (trefilina) egiten da. Esmaltatzeko makinetan hariaren bigarren trefilaketa bat egiten da, tratamendu termikoa (suberaketa) egin aurretik. Jarraian esmaltatzea egiten da, berniza aplikatzeko eta disolbatzaileak lurruntzeko etapak dituen.

Fabrikak energia elektrikoaren bidez jarduten du batik bat, eta urtean 26.231.060 kW konsumitzen dira. Energia elektrikoa ekoizte-prozesuetan, argietan, konfortean, etab. erabiltzen da. Gainera, C gasolioa erabiltzen da erregai gisa lurrun-galdaretan. Urteko gasolio-kontsumoa 488,617 m³-koa da.

Ederfil SK enpresaren ekoizte-prozesuak isuri atmosferikoak eta isurketak sortzen ditu. Isuri atmosferikoen 40 foku daude. Horietako hiru prozesuko lurrun-galdarek dagozkie, eta gainerakoak esmaltatzeko makinetan sortzen diren isuriak erauzteko dira. Sortzen diren isurketek dagokienez, kolektorera isurtzen diren lau fluxu daude. Sortutako isurketak hauek dira:

- Industria-urak: Desmineralizagailuko erreusen ondorioz sortuak.
- Euri-urak: Fabrikaren estalkiko euri-urak dira. Ez dute kutsadurarik.
- Hiru hozte-dorreen purgak eta garbiketa, eta horiei kanpoko biltegiko euri-urak gehitzen zaizkie.
- Ur sanitarioak.

Fabrikari sortutako hondakin arriskutsu nagusiak trefilaketakoak (trefilina), esmaltatzekoak (berniz-hondarrak eta disolbatzailea), eta zerbitzu orokorren prozesuari (ontzi kutsatuak, etab.) lotutakoak dira. Hondakin ez-arriskutsuen artean, txatarra, zura, zumitzak, hiri-hondakin solidoak eta papera eta kartoia daude.

Ederfil SK enpresak Legorretan dituen instalazioetan aplikatzekoak dira disolbatzaile-erabilerari buruzko BREF agirian jasotako TEOak:

- Instalazioen diseinua, muntaketa eta eragiketa: Atxikipen-kubetak ditu gai arriskutsuen isurketa-arrisku handiena dagoen eremuetan. Biltzeko eta xurgatzeko sistemak ditu gai toxiko eta narritagarrien isuriak sortzen diren eremuetan.
- Energia-erabilera murriztea: Ederfil SK enpresak isuriak errekontza katalitiko bidez tratatzeko sistema bat du. Horren bidez, disolbatzaileen errekontzan sortzen den beroa labeko airea berotzeko baliatzen da.
- Lehengaien erabilerako kudeaketa.
- Aplikatzea eta lehortzea: Ederfil SK enpresak isuriak errekontza katalitiko bidez tratatzeko sistema bat du, eta disolbatzaile-isuriak murrizten dira.
- Garbiketa: Disolbatzaile-kantitate minimoak erabiltzen saiatzen da.
- Arrisku txikiagoko gaiak erabiltzea. Ordezpen-printzipioa: Ederfil SK enpresa harremanetan dago beti berniz-hornitzailearekin, bernizetarako disolbatzaile egokiak erabiltzeko.

- Aireko isuriak eta isurien tratamendua: Ederfil SK enpresak isuriak errekuntza katalitiko bidez tratatzeko sistema bat du, eta disolbatzaile-isuriak murrizten dira.

- Hondakin-urak minimizatu: Ederfil SK enpresan sortutako hondakin-ur bakarrak hozte-dorreen garbiketakoak dira.

- Materialak berreskuratzea eta hondakinak kudeatzea: Prozesuak eta instalazioak materialen erabilera optimizatzeko eta hondakin-sorkuntza minimizatzeko moduan diseinatu dira.

- Usain-isuria: Ederfil SK enpresak isuriak errekuntza katalitiko bidez tratatzeko sistema bat du, eta disolbatzaile-isuriak murrizten dira.

- Zarata: Zarata-iturriak eta balizko hartzaileak identifikatuta ditu. Zarata minimizatzeko Ederfil SK enpresak hartutako neurrien artean, atea itxita lan egiten dela nabarmendu behar da.

- Haria fabrikatzeko berariazko neurriak: Lehortu ondoren, haria kanpoko airearen bidez hozten da.

- Beroaren kudeaketa integratua: Hozte-dorreak hondar-beroaren aprobetxamendua optimizatzeko diseinatuta daude.

Bigarrena.– Ederfil SK enpresak Legorretako udalerrian kobre esmaltatuzko haria fabrikatzeko sustatutako jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Ederfil SK enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Ederfil SK enpresaren fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanporatuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabilzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Ederfil SK enpresak Legorretan duen instalazioak foku hauek ditu, ingurune atmosferikoa babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

2014ko urtarrilaren 20a, astelehena

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa Taldea	UTM koordinatuak	
						X	Y
1	20000943-01	Esmaltatze-lerroko 2. makina	16	0.4	B	570865	4771056
2	20000943-02	Esmaltatze-lerroko 3. makina	16	0.4	B	570863	4771065
3	20000943-03	Esmaltatze-lerroko 1. makina	22	0.4	B	570862	4771053
4	20000943-04	Esmaltatze-lerroko 13. makina	8	0.15	B	570809	4771105
5	20000943-05	Esmaltatze-lerroko 14. makina	8	0.15	B	570805	4771104
6	20000943-06	Esmaltatze-lerroko 15. makina (1/4)	8	0.08	B	570817	4771106
7	20000943-07	Esmaltatze-lerroko 15. makina (2/4)	8	0.08	B	570815	4771106
8	20000943-08	Esmaltatze-lerroko 15. makina (3/4)	8	0.08	B	570814	4771105
9	20000943-09	Esmaltatze-lerroko 15. makina (4/4)	8	0.08	B	570813	4771104
10	20000943-10	Esmaltatze-lerroko 16. makina (1/4)	8	0.1	B	570832	4771112
11	20000943-11	Esmaltatze-lerroko 16. makina (2/4)	8	0.1	B	570831	4771111
12	20000943-12	Esmaltatze-lerroko 16. makina (3/4)	8	0.1	B	570830	4771110
13	20000943-13	Esmaltatze-lerroko 16. makina (4/4)	8	0.1	B	570828	4771109
14	20000943-14	Esmaltatze-lerroko 18. makina (1/4)	8	0.1	B	570839	4771040
15	20000943-15	Esmaltatze-lerroko 18. makina (2/4)	8	0.1	B	570838	4771039
16	20000943-16	Esmaltatze-lerroko 18. makina (3/4)	8	0.1	B	570836	4771037
17	20000943-17	Esmaltatze-lerroko 18. makina (4/4)	8	0.1	B	570835	4771036
18	20000943-18	Esmaltatze-lerroko 17. makina (1/2)	22	0.3	B	570851	4771048
19	20000943-19	Esmaltatze-lerroko 17. makina (2/2)	22	0.3	B	570850	4771047
20	20000943-20	Esmaltatze-lerroko 19. makina – 1. lerroa	22	0.2	B	570848	4771043
21	20000943-21	Esmaltatze-lerroko 19. makina – 2. lerroa	22	0.2	B	570847	4771043
22	20000943-22	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 3. lerroa	22	0.2	B	570844	4771041
23	20000943-23	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 4. lerroa	22	0.2	B	570843	4771040
24	20000943-24	Esmaltatze-lerroko 21. makina (1/2)	8	0.15	B	570828	4771041
25	20000943-25	Esmaltatze-lerroko 21. makina (2/2)	8	0.15	B	570828	4771040
26	20000943-26	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 5. lerroa	22	0.2	B	570859	4771051
27	20000943-27	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 6. lerroa	22	0.2	B	570857	4771050
28	20000943-28	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 7. lerroa	22	0.2	B	570856	4771049
29	20000943-29	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 8. lerroa	22	0.2	B	570855	4771048
30	20000943-30	Esmaltatze-lerroko 22. makina	8	0.31	B	570818	4771108
31	20000943-31	Esmaltatze-lerroko 24. makina	8	0.2	B	570838	4771110
32	20000943-32	Esmaltatze-lerroko 19. makina 9 eta 10. lerroak	22	0.35	B	570860	4771053
33	20000943-33	Esmaltatze-lerroko 25. eta 26. makina	8	0.26	B	570789	4771090
34	20000943-34	Esmaltatze-lerroko 30. makina	-	0.3	B	-	-
35	20000943-35	Esmaltatze-lerroko 28. makina	8	0.26	B	570779	4771082
36	20000943-36	Esmaltatze-lerroko 27. makina	8	0.26	B	570785	4771084
37	20000943-37	Esmaltatze-lerroko 29. makina	8	0.26	B	570811	4771038
38	20000943-38	Tecnivap lurrun-galdara	6	0.25	B	570829	4771030
39	20000943-39	Geval lurrun-galdara	6	0.16	B	570827	4771033
40	20000943-40	Teyvi lurrun-galdara	6	0.2	B	570824	4771037

Sustatzaileak «Esmaltatze-lerroko 30. makina» 34. fokuaren garaiera eta UTM koordinatuak aurkeztu beharko ditu.

Gainera, isuri barreiatu etenak sortzen dira esmaltatzeko makinetak batean, suberaketa-eremuan, ur-lurrunaren isuri bat sortzen baitu.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isuriek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gaindituko:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1etik 37ra	Konposatu organiko hegazkorrek (KOG gisa neurtuta)	*
38	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO ₂)	4.300 mg/Nm ³
	Nitrogeno oxidoak (NO _x)	300 ppm
	Opakutasuna	2 bacharach
39	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO ₂)	4.300 mg/Nm ³
	Nitrogeno oxidoak (NO _x)	300 ppm
	Opakutasuna	2 bacharach
40	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO ₂)	4.300 mg/Nm ³
	Nitrogeno oxidoak (NO _x)	300 ppm
	Opakutasuna	2 bacharach

* Bobinetarako alanbrea estaltzeko jarduerarako isurtzeko guztizko muga-balioa 10 g/kg-koa izango da alanbrearen batez besteko diametroa $\leq 0,1$ mm bada, edo 5 g/kg-koa handiagoa bada. Bobinetarako alanbrea estaltzeko jarduerari lotutako fokuetako neurketen emaitzen arabera, konposatu organiko hegazkorren (KOG gisa neurtuta) muga-balioak ezarriko dira hondakin-gasetan.

Muga-balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetetz luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuen eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtuta), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gaindituko, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoek isurtzeko muga-balioak gainditzen ez badituzte eta ordubeteko neurketa batek ere isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu (1,5etik gorako faktorea).

B.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniak Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Aginduan, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-flu-xuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urria-ren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. $L1 \geq 8D$ eta $L2 \geq 2D$ distantziak betetzen ezi diren fokuetarako inoiz ez dira $L1 < 2D$ eta $L2 < 0,5D$ balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isuri barreiatuak murrizteko, isuriak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira. Gainera, isuri horiek minimizatzea ziurtatuko duten jarduerak burutuko dira, hala nola instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, etab. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Hari eta kable elektriko isolatuen fabrikazioa.

Jarduera-taldea: Metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-3130.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea
PV01	Industrialia	Deskaltzifikazio-zutabeak berriztatzea eta desmineralizazioko erreusa	Kolektorea
PV03	Hozte-dorreak eta euri-ur nahasiak	Hozte-zirkuituetako purgak eta garbiketa	Kolektorea

PV01 eta PV03 isurketa-puntuetatik eramaten diren hondakin-urak saneamendu-sare orokorrera lotu beharko dira 6 hilabeteko epean. Kolektorera konexioa egiten denean isurketa-puntuaren UTM koordinatuak eman beharko dira.

Aurkeztutako agirien arabera garbitzat jotzen diren euri-urak Oria ibaira husten dira PV03 ize-neko puntutik, eta PV02 puntu gehigarritik.

Langileen erabilera higienikoko uren PV04 isurketa ere saneamendu-kolektore orokorrera gehi-tuko da.

Kolektorera konektatzeko 6 hilabeteko aldi zehar, isuriko diren efluenteen emariak hauek izango dira:

1. isurketa: PV1 - Industrialia - Deskaltzifikazio-zutabeak berriztatzea eta desmineralizazioko erreusa.

Orduko puntako emaria	1,1 m ³
Eguneko gehienezko bolumena	28 m ³
Urteko gehienezko bolumena	9.500 m ³

2. isurketa: PV3 - Hozte-zirkuituetako purgak eta garbiketa.

Orduko puntako emaria	0,63 m ³ /h
Eguneko gehienezko bolumena	5 m ³ /egun
Urteko gehienezko bolumena	10 m ³ /urte

B.2.2.– Isurketetarako baldintzak eta mugak.

Azken isurketak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren «Saneamendu-sarera doazen isurketak erregulatzeko araudian» adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

Hala ere, 16/2002 Legearen 22.2 artikulua aplikatuz, saneamendu-sare orokorrera konektatu arteko 6 hilabeteko epe horretan, isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak ondorengo zerrendan ageri direnak izango dira soilik, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko mugekin:

1. isurketa: PV1 - Industriala - Deskaltzifikazio-zutabeak berriztatzea eta desmineralizazioko erreusa.

Hartutako pH-a	5,5 eta 9,5 artean
Eroankortasuna (µS/cm)	2000
OEK (mg/l)	160tik behera
Solido esekiak (mg/l)	50etik behera
Burdina (mg/l)	2tik behera

2. isurketa: PV3 - Hozte-zirkuituetako purgak eta garbiketa.

Hartutako pH-a	5,5 eta 9,5 artean
OEK (mg/l)	80tik behera
Solido esekiak (mg/l)	50etik behera
Gutzizko fosforoa (mg/l)	5etik behera
Zinka (mg/l)	3tik behera
Burdina (mg/l)	2tik behera
AOX (mg/l)	0,5etik behera
Oxidatzaileak (kloroa, kasu) (mg/l)	0,05etik behera

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.2.3.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Langileen erabilera higienikoko urak, eta hozte-zirkuituen purgetako industria-urak eta deskaltzifikazio- eta desmineralizazio-prozesuko erreusekoak 6 hilabeteko epean lotu beharko dira derrigorrez kolektore orokorrera. Ederfil SK enpresaren erantzukizuna izango da hargune-azpiegiturak egitea, eta hala badagokio, beharrezko barne-sarea birmoldatzea.

Epe horren barruan egiaztatuko da hargune hori egin izana.

Aire-konpresoreek galdaratxoetako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Kontrol-kutxeta bat jarriko da hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak sarbide zuzena duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio, Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatu ahal izan ditzan.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak apirilaren 21eko 10/1998 Legean, hondakinekin buruzkoan, eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira horien izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegitzatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegean ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorritik gauzatu da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegean hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideak.

Hondakinak biltegitzatzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketan hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ustekabeko jarioak kanpora irten ez daitezzen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu eta ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Legorretako Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Trefilaketa».
- 1. hondakina: «Kobre-hautsa duen trefilina-iragazlea».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/1/1.
- Hondakinaren kodea: Q8//D15//S25//C6/51//H14//A247)//B3258.
- EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,18 tona.

Trefilaketan sortzen da, kobre-hariak iragazki bidez garbitzean, eta trefilina paper iragazle bidez iragaztean edo araztean. Hondakina feltrozko eta paperezko material iragazleak dira, kobre-hautsaz eta trefilinaz bustiak.

Hondakin horrentzako berariaz identifikatutako bidoian biltzen da eta hondakin-biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Trefilinaz bustitako kobre-hautsa».

– Identifikazioa: F20048351/2017307/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13/4/P25//C6/51//H5 //A247//B3258.

– EHZ: 120118.

– Urtean sortutako kantitatea: 1 tona.

Trefilina iragazten den tangak hustean eta garbitzean sortzen da. Batik bat andel horien hondoan dekantatutako kobre-partikulak dira.

Hondakin-biltegian hondakin horrentzako berariaz identifikatutako bidoian biltzen da.

○ 3. hondakina: «Trefilina erabilia».

– Identifikazioa: F20048351/2017307/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//L9//C51//H5//A247//B3258.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 9 tona.

Kobre-haria trefilatzeke trefilina erabilia da.

Hondakin horrentzako berariazko andelean bildu eta biltegitratzen da, eta kudeatzaile baimenduari emateko erretiratzen da.

● 2. prozesua: «Esmaltatzea».

○ 1. hondakina: «Esmaltatuz bustitako solidoak».

– Identifikazioa: F20048351/2017307/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S23//C41//H5//A247//B3257.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,9 tona.

Feltro eta bestelako material iragazle bustiak eta kobre-haria esmaltatzeko erabilitako produktu leungarriak dira. Eta orokorrean koipegabetailez, esmaltez eta bernizez bustitako ehunkiak eta paperak.

Hondakin horientzako berariaz identifikatutako upeletan biltzen dira eta upel horiek hondakin-biltegiara eramaten dira.

○ 2. hondakina: «Berniz- eta disolbatzaile-hondarrak».

- Identifikazioa: F20048351/2017307/2/2.
- Hondakinaren kodea: Q7//R13//L05//C39//H3B/6//A247//B3257.
- EHZ: 080111.
- Urtean sortutako kantitatea: 15,3 tona.

Esmalte mota aldatzeko esmaltatzeko makinak garbitzean edo horien mantentze-lanak egitean sortutako hondakina.

Hondakin horientzako berariaz identifikatutako bidoietan biltzen dira eta hondakin-biltegira eramaten dira.

- 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

- 1. hondakina: «Olio erabilia».

- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/1.
- Hondakinaren kodea: Q5//R13/L8//C51//H5/6//A247//B0019.
- EHZ: 130205.
- Urtean sortutako kantitatea: 0,7 tona.

Konpresoreetako purgen bereizgailuko olio-hondakinak dira, eta motor eta erreduktoreetako olio erabiliak.

Hondakin horientzako berariaz identifikatutako bidoietan biltzen dira eta horiek hondakin-biltegi-gira eramaten dira.

- 2. hondakina: «Koipegabetzailea».

- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/2.
- Hondakinaren kodea: Q5//R13/L5//C40/51//H6//A247//B0019.
- EHZ: 140602.
- Urtean sortutako kantitatea: 200 litro 5 urtean behin.

Ekoizpen-piezak, ekipoak eta makinak garbitzean sortzen da. Batik bat hidrokarbuo alifatikoz eta disolbatzaile klorodenez osatutako produktu garbigarri bat da.

Hondakin horientzako berariaz identifikatutako bidoietan biltzen dira eta hondakin-biltegira eramaten dira.

- 3. hondakina: «Metalezko bidoiak (gai arriskutsuen hondarrak dituztenak)».

- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/3.
- Hondakinaren kodea: Q5//R4/S36//C41/51//H5//A247//B0019.
- EHZ: 150110.
- Urtean sortutako kantitatea: 0,7 tona.

Disolbatzaileak eta lubrifikatzaileak kontsumitzean sortzen da. Gai arriskutsuz bustitako metaluzko ontziak dira, edo horien hondarrak dituztenak.

Identifikatu eta berariazko eremuan biltzen dira hondakin-biltegian.

- 4. hondakina: «Berun/azidozko bateriak».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/4.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8//A247//B0019.
- EHZ: 160601.
- Urtean sortutako kantitatea: 1 unitate 2 urtean behin.

Bateriak birjartzean sortzen da. Beruna eta disoluzio azidoa duten bateria erabiliak dira.

Hondakin horretarako berariazko eremuan biltzen da.

- 5. hondakina: «Poliklorobifeniloa duten transformadoreak».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/5.
- Hondakinaren kodea: Q12//D15//S-L10//C32/51//H6/7//A247//B0019.
- EHZ: 160209.
- Urtean sortutako kantitatea: 1 transformadore.

Poliklorobifeniloa duten ekipoen ordezte programatuan sortzen da hondakin gisa. Hondakin gisa sortzen denean, zuzenean erretiratuko da bere tokitik kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

- 6. hondakina: «Plastikozko ontzi huts kutsatuak».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/6.
- Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C41/51//H5//A247//B0019.
- EHZ: 150110.
- Urtean sortutako kantitatea: 700 unitate.

Makina eta instalazioen mantentze-lanetako produktu kimikoak kontsumitu ondoren sortzen da.

Estalkipean eta soltean biltegitratzen dira.

- 7. hondakina: «Tresna elektriko eta elektronikoak».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/7.
- Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C06/18//H06//A247//B0019.
- EHZ: 160213.
- Urtean sortutako kantitatea: 2 unitate.

Tresna horiek ordeztean sortzen da. Kaxetan bildu eta biltegitratzen dira, kudeatzaile baimenduari emateko.

- o 8. hondakina: «Fluoreszenteak».
- Identifikazioa: F20048351/2017307/3/8.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A247//B0019.
- EHZ: 200121.
- Urtean sortutako kantitatea: 10 unitate.

Tresna horiek ordeztan sortzen da. Kaxetan bildu eta biltegitratzen dira, kudeatzaile baimenduari emateko.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioen bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketan kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko errege-lamendua onartzen duenak, 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezten.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute. Etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegitratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakin-kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Ederfil SK enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraibideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Ederfil SK enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren, industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duenaren, eta irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duenaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

j) Ederfil SK enpresak poliklorobifeniloak dituzten gailuak dituenek, nahitaez bete behar ditu abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituenaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo-edukia jakinarazi beharko du. Ederfil SK enpresak PKB duten gailuak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Ederfil SK enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentze-lanak egin aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

l) Ederfil SK enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegitratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan, eta uztailearen 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko ondorengo aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezenean, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Ederfil SK enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

o) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

p) Amiantoak duten hondakinak antzemanek gero, Ederfil SK enpresak 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan, amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t)
Txatarra (kobrea)	120103	Trefilaketa	1202
Zura	150103	Zerbitzu Orokorrak	133,552
Zumitza	120103	Zerbitzu Orokorrak	21
Plastikoak (txirrika-hondarrak)	150102	Zerbitzu Orokorrak	130,220
Hiri-hondakin solidoak	200108	Zerbitzu Orokorrak	71,1
Papera eta kartoia	150101	Zerbitzu Orokorrak	79,8
Inprimagailuko tonerra	200108	Zerbitzu Orokorrak	10 unitate

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaille, birziklatzaille edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegitatu. Hondakinen azken helburua balioztea denean, 2 urtez biltegitatu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarritzko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Ederfil SK enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin, hondakinak zabortegean biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duenarekin bat etorritik, hondakin ez-arriskutsuak zabortegei baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilia.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurreiazko txostenean jasota dauden gomen-dioen arabera, Ederfil SK enpresak ebazpen honetako D.3.e) eta D.3.i) ataletan jasotako neurriak (ezohiko jardunean aplikatzeko prebentzioari eta jarduketari buruzkoak), eta ebazpen honetako B.3 atalean jasotako neurriak (hondakinak biltegitatzeari buruzkoak) hartuko ditu.

Gainera, edozein arrazoiengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara

igorri behar dira material horiek atera aurretik, lanak onartu ahal izateko. Azterketa eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honetako H atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta atearak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta atearak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sensibilitate akustiko handieneko gunetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Ederfil SK enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000943-01	Esmaltatze-lerroko 2. makina	Konposatu organiko hegazkorak (KOG gisa neurtuta)	3 urtean behin
2	20000943-02	Esmaltatze-lerroko 3. makina		
3	20000943-03	Esmaltatze-lerroko 1. makina		
4	20000943-04	Esmaltatze-lerroko 13. makina		
5	20000943-05	Esmaltatze-lerroko 14. makina		
6	20000943-06	Esmaltatze-lerroko 15. makina (1/4)		
7	20000943-07	Esmaltatze-lerroko 15. makina (2/4)		
8	20000943-08	Esmaltatze-lerroko 15. makina (3/4)		
9	20000943-09	Esmaltatze-lerroko 15. makina (4/4)		
10	20000943-10	Esmaltatze-lerroko 16. makina (1/4)		
11	20000943-11	Esmaltatze-lerroko 16. makina (2/4)		
12	20000943-12	Esmaltatze-lerroko 16. makina (3/4)		
13	20000943-13	Esmaltatze-lerroko 16. makina (4/4)		

2014ko urtarrilaren 20a, astelehena

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna		
14	20000943-14	Esmaltatze-lerroko 18. makina (1/4)				
15	20000943-15	Esmaltatze-lerroko 18. makina (2/4)				
16	20000943-16	Esmaltatze-lerroko 18. makina (3/4)				
17	20000943-17	Esmaltatze-lerroko 18. makina (4/4)				
18	20000943-18	Esmaltatze-lerroko 17. makina (1/2)				
19	20000943-19	Esmaltatze-lerroko 17. makina (2/2)				
20	20000943-20	Esmaltatze-lerroko 19. makina – 1. lerroa				
21	20000943-21	Esmaltatze-lerroko 19. makina – 2. lerroa				
22	20000943-22	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 3. lerroa				
23	20000943-23	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 4. lerroa				
24	20000943-24	Esmaltatze-lerroko 21. makina (1/2)				
25	20000943-25	Esmaltatze-lerroko 21. makina (2/2)				
26	20000943-26	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 5. lerroa				
27	20000943-27	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 6. lerroa				
28	20000943-28	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 7. lerroa				
29	20000943-29	Esmaltatze-lerroko 20. makina – 8. lerroa				
30	20000943-30	Esmaltatze-lerroko 22. makina				
31	20000943-31	Esmaltatze-lerroko 24. makina				
32	20000943-32	Esmaltatze-lerroko 19. makina 9 eta 10. lerroak				
33	20000943-33	Esmaltatze-lerroko 25. eta 26. makina				
34	20000943-34	Esmaltatze-lerroko 30. makina				
35	20000943-35	Esmaltatze-lerroko 28. makina				
36	20000943-36	Esmaltatze-lerroko 27. makina				
37	20000943-37	Esmaltatze-lerroko 29. makina				
38	20000943-38	Tecnivap lurrun-galdara			Karbono monoxidoa (CO) Sufre dioxidoa (SO ₂) Nitrogeno oxidoak (NO _x) Opakutasuna	5 urtean behin
39	20000943-39	Geval lurrun-galdara				
40	20000943-40	Teyvi lurrun-galdara				

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan egindako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza).

c) 2008ko apirilaren 30a baino lehen egindako neurketen KEB txostenek «KEBen gutxienerako txostenen» adierazitakoa beteko dute. 2008ko apirilaren 30a baino beranduago aurkeztutako neurketen KEB txostenek IT-DPECA-EA-IPPC-03, IT-DPECA-EA-IPPC-04 eta IT-DPECA-ES-IPPC-05 instrukzio teknikoetan adierazitakoa beteko dute (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren web-ean eskura daitezke) eta txostenak kontuan hartuko du «IPPC instalazioetan KEBen gutxienerako edukari buruzko instrukzioa», eta web-orrian eskura daiteke hau ere: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-3614/es/contenidos/informacion/aire_ippc/es_aireippc/indice.html.

d) Ildo horretan, errepikatu beharra dago instrukzio tekniko horietan eta UNE 13284-1 arauan, kontzentrazio baxuko partikulak zehaztekoan (1. zatia eskuzko metodo grabimetrikoa) eskatutako eskakizunak betetzeko, 0,35 m-tik gorako barne-diametroa duten fokuek bi laginketa-zulo izan beharko dituztela, arau horretan ezarritako baldintzetan.

e) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurien ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

f) Ederfil SK enpresak urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan, zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isuriak murriztekoan ezarritakoa beteko du. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko du.

g) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzkoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. {0>En dicho registro se plasmarán los resultados de las mediciones realizadas, las operaciones de mantenimiento, limpieza, revisiones periódicas, paradas por avería, comprobaciones, incidencias de cualquier tipo, etc.<}100{>Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, etab.<0} Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dituzte.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Kolektorerara lotu ondoren, urak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren «Saneamendu-sarera doazen isurketak erregulatzeko araudian» zehaztutakoari jarraituz isuriko dira.

B.2.1 atalean adierazitako 6 hilabeteko epean zehar, sustatzaileak analisi hauek egin beharko ditu:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordinatuak		Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
		X	Y			
PV01	Industrialia	570879	4771112	pH-a, eroankortasuna, SE, OEK, guztizko Fe	Lau hilean behin	Kanpoko

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua), edo saneamendu-sarea kudeatzeko erakunde arduradunak, eta baimendutako parametroak hartuko dira kontuan. Isurketak baimeneko baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Pieza-ekoizpena	Tonak
Kobre-kontsumoa/tona produktu	Tona Cu/tona produktu
Elektrizitate-kontsumoa/tona produktu	kWh/tona produktu
Gasolio-kontsumoa/tona produktu	m ³ /tona produktu
Berniz-kontsumoa/tona produktu	M ³ /tona produktu
KOH isuriak/tona produktu	mg KOG/m ³ /tona produktu
Isuritako bolumena / ur-kontsumoa	m ³ isuri/m ³ kontsumitu
HA sortu/tona produktu	Tona HA/tona produktu
HA baliotu/HA sortu	Tona HA baliotu/tona HA sortu
HeA sortu/tona produktu	Tona HeA/tona produktu
HeA baliotu/HeA sortu	Tona HeA baliotu/tona HeA sortu
Ingurumeneko gorabehera kopurua	-

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontrolleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agiritan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Gainera, ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-eragiketei dagokienez, enpresak isuririk ez dagoela eta ohi-koak ez diren baldintzetan hondakinik ez dela sortzen justifikatuko du.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa (2873 epigrafea «Alanbrezko produktuak fabrikatzea»), eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen. Hori dela-eta, Ederfil SK enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontaktzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

D.1 atalean jasotzen den proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegitratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapenerako eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurre hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, trefilina maneiatzeko lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegitratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegitratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegitratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiria.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzekeo erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, bereziki gasolio-andelaren eta trefilina-tangen eremuan; segurtasuneko edukiontziak; hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak, eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Kanpoko biltegian biltegitratutako gai likidoetarako atxikipen-kubetak jarri beharko dira.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, trefilina edo gasolioa biltegitratzeko andelak haustea, B.1.2 atalean adierazitako erauzketa-fokuek gaizki funtzionatzea, etab.), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

l) Gertakari edo arazo larriren bat eta isurketa edo ustekabeko isuri atmosferikoren bat eginenez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS DEIAK eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak, berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

m) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiria. Hori egin ezean, eragindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da erakunde eskudunaren aurrean.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomen-datzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi

ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Ederfil SK enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosfera eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatuko eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isuriaren gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedura-koak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroa (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritik. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gailetan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritzak eskudunari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziak (EE 1907/2006 Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu dira horiek) giza osasunerako eta ingurumen-erako izan dezaketean arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.— Ederfil SK enpresak ingurumen-organismoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako Bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean: B.3.1.e) eta B.3.2.c) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.2.3 (Kolektorerak lotzeko obrak egin izanaren egiaztagiria, eta benetako konexioaren egiaztagiria); B.3.1.j) (PKBak izatearen adierazpena); B.3.1.m) eta B.3.2.e) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); B.4 (Lurzoria babes-teko baldintzak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola), (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.4 (Zarata kontrolatzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (Produktu kimikoen biltegiatzearen egiaztagiria); D.3.h) (Larrialdietarako materialen zerrenda); D.3.m) (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiria).

Era berean, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek egin beharreko ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrira eraiki eta ekipatu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igerota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldiatarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Ederfil SK enpresak ebazpen honen xede den kobre esmaltatuzko haria fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

- Epearen barruan ebazpen honetako hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu, baldin eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

- Ederfil SK enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Ederfil SK enpresari, Legorretako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerrako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 114. artikuluekin eta ondorengoekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 24a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.